

Euskal AEn 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileak modu uniformean banatuta daude eskualdeetan

Berrikuntzako jardueren gastua euskal hiriburuetan kontzentratzen da

Eustatek egindako datuen arabera, Euskal AEn 2009an 10 langile eta gehiagoko enpresa **berritzaileak** %38,9 izan ziren. Ehuneko hau nahiko uniformea da, eskualdeka nola banatuta dagoen ikusiz gero.

1. taula: 10 langile eta gehiagoko enpresak berrikuntza teknologikoarekin eta gastua. 2009. urtea

	Berrikuntza teknologikoa (%)	Berrikuntza ez teknologikoa (%)	Berrikuntza guztira (%)	Gastua berrikuntzan (milioi €)
Euskal AE	29,8	26,3	38,9	2.219,9
Vitoria - Gasteiz	29,1	20,9	36,3	338,4
Bilbao	27,6	26,2	36,9	278,1
Donostia - San Sebastian	31,5	29,4	42,2	207,2
Araba	30,4	21,4	37,7	444,1
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	29,1	20,9	36,4	366,4
Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa	33,3	21,6	38,7	10,7
Kantauri Arabarra / Cantábrica Alavesa	37,7	24,6	45,0	47,8
Arabako Besteak / Resto de Alava	33,7	23,4	42,7	19,2
Bizkaia	27,9	26,0	37,0	1.013,2
Arratia Nerbioi / Arratia-Nervión	31,3	30,0	40,0	24,1
Bilbo Handia / Gran Bilbao	26,9	25,3	35,9	805,2
Durangaldea / Duranguesado	31,4	27,1	40,7	114,4
Enkartzioak / Encartaciones	25,9	29,4	36,6	7,7
Gernika-Bermeo	35,2	31,0	46,1	20,6
Markina-Ondarroa	30,5	26,6	37,1	17,3
Plentzia-Mungia	34,3	31,3	45,2	23,9
Gipuzkoa	32,2	29,0	42,2	762,6
Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	25,1	23,6	33,9	49,0
Deba Beherea / Bajo Deba	33,8	26,6	43,0	56,8
Deba Garaia / Alto Deba	36,9	30,9	46,8	112,4
Donostialdea	31,7	29,0	42,0	348,7
Goierri	34,6	31,7	44,4	101,4
Tolosaldea / Tolosa	33,8	31,2	44,0	36,0
Urola-Kostaldea / Urola Costa	33,1	30,7	43,4	58,3


Iturria: Eustat. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

Arabako berrikuntza enpresen %45,0 Kantauri Arabarrean daude, Bizkaiko %46,1 Gernika-Bermeon eta Gipuzkoako %46,8 Deba Garaian. Enpresa berritzaileen ehuneko txikieneko eskualdeak, aldiz, beste hauek dira: Arabako Lautada (%36,4) Araban, Bilbo Handia (%35,9) Bizkaian eta Bidasoa Beherea (%33,9) Gipuzkoan.

Euskal hiriburuei dagokienez, Donostia nabarmentzen da enpresa berritzaileen %42,2rekin, jarraian Bilbo dago (%36,9) eta gero Gasteiz (%36,3).

Informazio hau **berrikuntza teknologikoan** eta **berrikuntza ez teknologikoan** banatuz gero, nabarmentzen diren eskualdeak aurreko berak dira **berrikuntzaren** kasuan, bai enpresa gehien dutenen kasuan bai gutxien dutenetan.

1. grafikoa: Berrikuntza teknologikoko gastuaren banaketa. 2006-2009. (milioi eurotan)



Iturria: Eustat. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

Berrikuntzako jardueretako gastuari dagokionez, kopuru nagusiak hiriburuak dauden eskualdeetan kontzentratzen dira, Gipuzkoan izan ezik, eta Lurralde bakoitzeko gastuaren zatirik handiena dira. Araban gastuko 444,1 milioitik 366,4 Lautadan kokatzen dira eta Bizkaian 1.013,2 milioitik 805,2 Bilbo Handian. Gipuzkoan, ordea, 762,6 milioitik 348,7 Donostialdekoak dira, baina kopuru garrantzitsuak geratzen dira Lurraldeko beste eskualde batzuetarako, Deba Garairako 112,4 milioi eta Goierriko 101,4 milioi.

Esan beharra dago, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskualderik nagusienetan berrikuntzako jardueren gastua etengabe hazi dela 2006-2009 aldian, baina Araban 2009an gastuak 2006ko mailetara egin du atzera.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako: José Miguel Escalada

Tel.: +34-945-01 75 96 Faxa: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Datu-bankua